

..... FORU AGINDUA, OSASUNEO KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ NAFARROAKO ZERBITZUEN ZORRO OSAGARRIAN SARTZEN BAITIRA DIAGNOSTIKO ONKOLOGIKOA DUTEN HAURREN HORTZ-HAGIN EZ IRAUNKORREN AHO-HORTZETAKO TRATAMENDUEN PRESTAZIOAK

HITZAURREA

Abenduaren 28ko 249/2011 Foru Dekretuaren bidez arautu zen Nafarroako Haurren Aho-hortzetako Osasun Laguntzaren Programa. Haren bidez, Nafarroan bizi diren haur guztiei hortzetako oinarriko osasun laguntza doan bermatzen zaie, 6 urtetatik hasi eta 15 urte arte. Arau horren 2. artikulua aho-hortzetako prestazio jakin batzuetarako eskubidea jasotzen du, besteak beste, hortz-hagin iraunkorren obturazioa eta hortz-hagin iraunkorren mamiaren tratamendua. Beraz, hortzetako oinarriko osasun laguntza horretatik kanpo gelditu ziren hortz-hagin ez iraunkorrak.

Sartuko den prestazio berriari dagokionez, kontuan hartu behar da paziente onkologikoaren tratamenduak zerkusia duela tratamendu antineoplasikoan zehar eta haren ondoren gertatzen diren ahoko konplikazioekin; ohikoak izaten dira, eta pazientearen bizi kalitatea baldintzatzen dute, haren egoera klinikoa larriagotuz eta infekzio arriskuak handituz. Konplikazio horien maiztasuna erabilitako terapia moten eta haien intentsitatearen arabera izaten da.

Tratamenduaren ondorioz sortzen diren txantxarrak tratatzeko, ezinbestekoa da obturazioak egitea, baita hortz-hagin ez iraunkorretan ere, egoki iruditzen bazaio osasun langileari. Izan ere, lehen hortz-haginetako txantxarra ez bada tratatzen, litekeena da infekzioak eta hortz galerak izatea behar baino lehenago. Horrek arazoak sortuko lituzke beranduago, hortz-hagin iraunkorrak hutsuneetarantz mugitu eta behin betiko beste hortz-hagin batzuk ateratzea eragotzi baitezakete, makur ateraraziz edo pilaketa arazoak sortuz.

Beraz, kimioterapia eta bereziki erradioterapia tratamenduak jasotzen dituzten haurrengan txantxarraren prebalentzia handiagoa izateak justifikatzen duelako, zentzuzkoa dirudi, osasun laguntzaren ikuspuntutik, prestazio horiek ere sartzea; hau da, hortz-hagin ez iraunkorretako txantxarren obturazioa eta hortz-hagin ez iraunkorren mamiaren tratamendua.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, agindu dut:

1. artikulua. *Xedea.*

Foru agindu honen xedea da Nafarroako zerbitzu osagarrien zorroan sartzea diagnostiko onkologikoa duten pertsonen lehen hortz-haginetako aho-hortzetako tratamenduen prestazioak.

2. artikulua. *Prestazioaren onuradunak.*

Foru agindu honetan adierazitako prestazioak jaso ahal izanen dituzte diagnostiko onkologikoa duten erabiltzaileek, baldin eta Nafarroako Osasun Sistema Publikoaren doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortua badute.

3. artikulua. *Prestazioak.*

Nafarroako zerbitzuen zorro osagarriaren barnean sartzen dira, aho-hortzen osasunari dagokionez, diagnostiko onkologikoa duten haurrendako prestazio hauek:

- a) Hortz-hagin ez iraunkorretako txantxarraren obturazioa.
- b) Hortz-hagin ez iraunkorren mamiaren tratamenduak.

4. artikulua. *Prestazioak jasotzeko baldintzak.*

1. Prestazio horiek jasotzeko, beharrezkoa izanen da pediatria onkologikoaren zerbitzuak paziente bideratzea Osasunbideko aho-hortzen osasun unitateetara.
2. Tratamendu horiek eginen dira Nafarroako aho-hortzen unitateetako profesionalek egokitzat jotzen duten aldiro, eta ez haurraren gurasoek berariaz eskatzen dutenean.

Xedapen gehigarri bakarra.

Foru agindu honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.